



**EBAZPENA, 2014KO IRAILAREN 17KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO
ZUZENDARIARENA, EUSKARA-IKASTAROAK 2014/2015 EGITEKO
ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA
ARGITARA EMATEN DUENA**

AURREKARIAK

- 1.- Justizia Administrazioiko langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak 2014/2015 ikasturterako ikastaro-eskaintza egin zuen.
- 2.- 2014ko uztailaren 29ko ebazpenaren bidez, Justizia Administrazioiko zuzendariak euskara-ikastaroak 2014/2015 egiteko onartutako en eta baztertutako en behin-behineko zerrenda argitara eman zuen.
- 3.- Aipatutako ebazpenean ezartzen den bezala, interesdunek 20 egun naturaleko epea izan zuten ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Era berean organo judizial bereko plantillaren %30eko muga ezartzearen ondorioz lanorduetako ikastaroetarako baimenik jaso ez zuten eskatzaileek lanorduz kanpoko ikastaroa eskatu ahal izan zuten. Horretarako epea 2014ko abuztuaren 18an amaitu zen.
- 4.- Aurkeztutako erreklamazioak behar bezala aztertu dira, baita organo judizial guztien egoerak ere. Hori guztia behin-behineko ebazpenean ezarritako eta ebazpen honetan berriro ere adierazten diren irizpideen arabera egin da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Martxoaren 26ko 60/1996 Dekretua -Transferentzien Batzorde Mistoak 1996ko otsailaren 16an hartutako akordioa onartzen duena- eta martxoaren 15eko 514/1996 Errege Dekretua -Estatuko Administrazioak Justizia Administrazioiko langileen zeregin eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskuz aldatzeari buruzkoa-. Behin eskualdatze hori egin eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Justizia Administrazioa giza baliabideez hornitzea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan, 2003ko abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak emandako egungo idazketan ezarritako moduan.



BIGARRENA.- Deialdiak jasotzen duenari jarraiki, oro har organo judizial bereko plantillaren %30ak baino ez du lanorduetan 2 orduko ikastaroetara joaterik izango, berdin 5 orduko ikastaroetarako ere. %30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta bereiztutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehuneko unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da.

HIRUGARRENA.- Deialdian ezarritakoa betetzeko asmoz, hona hemen zuzendaritza honek zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak, kode bidez laburturik eta kontuan hartutako ordenean:

Kodea	Irizpidea
1	Lehentasuna izango du bereiztutako dotazioa duen langileak eta bere kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duenak. Ondoren lehentasuna izango du beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna esleitzeko eskatzen duenak (bere kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea lortu arte).
2	Lehentasuna izango du lehentasunezkoztat jotako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
3	Lehentasuna izango du bere kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duen langileak. Kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea lortzen duenean, lehentasun hori galduko du.
4	Lehentasuna izango du euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duen langileak. Kontuan izango da aurreko ikasturtean euskara-ikastaroetan, Orekaon ikastaroetan... ibili den, betiere aprobetxamendu ona izan badu.
5	Lehentasuna izango du destinoko zentroan antzinatean handiena duen langileak.
6	Lehentasuna izango du aurreko ekitaldietan eskainitako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan duen langileak.
7	Lehentasuna izango du langile gazteenak, aurretik aipatutako irizpideak nahiko ez badira.

5 orduko ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:

8	Karrerako funtzionarioa ez izatea 5 orduko ikastaroa egin ahal izateko.
9	Kidegoari esleitutako hizkuntza-eskakizuna edo baliokide den maila gainditua izatea.
10	Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana.
11	Eskatzen den gutxieneko euskara-maila ez izatea.
12	Irizpide akademikoen arabera, kidegoari esleitutako hizkuntza-eskakizuna lortzeko nahikoa izatea lauhileko bakar batean liberatzea.

Autoikaskuntza ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:

13	Karrerako funtzionarioa ez izatea autoikaskuntza ikastaroa egin ahal izateko.
14	Beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna ez egiaztatzea.

Udako ikastaroa egiteko baimenik ez emateko arrazoi bereziak hauek dira:

15	Karrerako funtzionarioa ez izatea ikastaroa lanorduetan egin ahal izateko.
16	Organo judizialeko arduradunaren oniritzia lortu ez izana ikastaroa lanorduetan egin ahal izateko.
17	Kidegoari esleitutako hizkuntza-eskakizuna edo baliokide den maila gainditua izatea.
18	Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana.
19	Ikastaroa behar bezala garatzea eragozten duen egoeraren batean (lanaldi-murrizketa...) egotea.



Azkenik, bestelako baztertze-irizpide batzuk ere ezarri ahal izango dira:

20	Lanpostu hutseko bitartekoa ez izatea ikastaroa lanorduetan egin ahal izateko.
21	Aurreko ikasturtean aprobetxamendua bete ez izana (asistentzia / urratsa). Ikaslearen ikasketa-ibilbidea.
22	Justizia Administrazioan momentu honetan lan ez egitea.
23	Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak eskatutako ikastaroari uko egin izana.
24	2012/2013 eta 2013/2014 ikasturteetan ikastaroari uko egin izana.
25	Mailaketa-proba egiteko zain egotea.
26	Mailaketa-proba/sarrera-proba ez egitea eta ez justifikatzea.
27	Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea.
28	Euskaltegia eta lantokia urrun egotea (20 minutu baino gehiago).
29	Zerbitzu-betebeharrak egotea.
30	Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.
31	Bulego Judizial Berrian hizkuntzagatik bereiztutako dotazioa hautatu ez izana, aukera izan arren.

LAUGARRENA.- Behin-behineko ebazpenaren bidez ikastaroren batera joateko baimena izan eta ebazpen honen bidez ikastaroetatik kanpo gelditu direnek lanorduz kanpoko ikastaroa eskatzeko aukera izango dute **irailaren 17tik 26ra bitartean (biak barne)**.

BOSGARRENA.- 5 orduko ikastaroa egiteko baimena lortu duen funtzionarioak guardiak egin ahal izango ditu. Titularra guardiak egiteko prest ez balego, ordezkoak egingo lituzke. Edonola ere, ezin izango dituzte biak egin.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau atera aurretik lekualdaketa-lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratu ez denez, ezin izan ditugu datuok kontuan hartu. Dena dela, lekualdaketa-lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratzen denean, kasuan kasuko egoera aztertuko da.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT

LEHENA.- *Euskara-ikastaroak 2014/2015* egiteko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzea eta argitaratzea, baita zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak ere, zeintzuen kodeak ebazpen honetan zehazten diren.

BIGARRENA.- Honako ebazpenak ez du bide administratiboa agortzen. Interesdunek horren kontra **gora jotzeko errekurtsua** aurkez dezakete Justizia sailburuorde andreari zuzendua. Horretarako **hilabeteko epea** izango dute, **ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita urriaren 17ra bitartean (biak barne)**.



Behin gora jotzeko errekurtoa jarri ondoren, hiru hilabete igaroz gero ebazpenik ematen ez bada, ez onartuzat ulertuko da, eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko irailaren 17an

Jon Arturo Uriarte Unzalu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA